

ETXEBARRIA



# BANDOA

## COVID-19: OSASUN LARRIALDIA NEURRIAK (Urriaren 23tik aurrera)

4448 AGINDUA, 2020ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena

**1,5 METROKO DISTANTZIA** mantentzea eta **HIGIENE NEURRIAK** zaintzea ezinbestekoa da.

**MASKARILA ERABILTZEA** eta berau **MODU EGOKIAN ERAMATEA DERRIGORREZKOA** da 6 urtetik gorakoentzat.

**ERANTZUNKIDETASUNEZ JOKATZEA** eskatzen zaie herritarrei.

**\*UNEAN UNEKO SEGURTASUN ETA AFORO NEURRIAK ERRESPETATU BEHARKO DIRA**

• **PERTSONEN BILERA ETA ELKARTZEAK:** **Gomendatzen da** bizikidetza unitatetik kanpoko topaketak murriztea, eta topaketa horiek **gehienez 6 PERTSONAkoak** izatea.

• **OSTALARITZA: TABERNA, ETA JATETXEAK**

- Barruko zein kanpoko kontsumoa: **GEHIENEZ 6 PERTSONA** mahai edo mahai multzo bakoitzeko, **BETI ESERITA**, mahai bateko bezeroaren eta hurrengoaren artean 1,5 metroko distantzia mantenduz (bizikide unitate berekoak salbu).

- Barruko zerbitzua: lokal barruan egotea eta kontsumitzea baimenduta dago, betiere pertsonak **ESERITA** badaude eta elkarren arteko **segurtasun-tartea** mantentzen bada (bizikide unitate berekoak salbu).

- **00:00**etarako **ITXI** beharko dituzte ateak, bezeroz hustu ondoren.

- **Maskara** nahitaez erabili beharko da **une oro**, kontsumitzeko berariazko unean izan ezik.

• **TXOKOAK ETA ELKARTE GASTRONOMIKOAK:** **Debekatuta dago**

txokoetan eta elkarte gastronomikoetan **edozer jarduera mota egitea**, eta **itxita** egon beharko dute.

• **LONJAK:** **Debekatuta dago jarduera oro** lonjetan eta **antzeko** ezaugarriak dituen **beste edozein lokaletan**.

• **AIRE LIBREKO EKINTZAK:**

- Federatu gabeko **jarduera fisikoa eta kirol-jarduera**, aire zabalean, bakarka edo taldeka egin ahalko da, kontaktu fisikorik gabe eta **gehienez 6 pertsonako** taldeetan.

- Turismo aktiboko / naturako jarduerak **gehienez 6 pertsonako** taldeetan egin ahalko dira.

- **Botiloia** egitea **debekatzen** da.

• **KULTU-LEKUAK:** Ezingo da **edukieraren %50a** gainditu.

• **KANPOSANTUAN:** **gehienez 30 pertsona**.

• **TABAKOAREN KONTSUMOA:** **Debekatuta dago** eremu publikoetan erretzea, **erretzaileak ezin badu bermatu pertsonarteko gutxieneko 2 metroko distantzia**. Maskarila kea arnastu eta botatzeko bakarrik kenduko da.

• **KULTUR ETA KIROL EKITALDIAK:** Gehieneko edukieraren %50ean, ikusleak eserita eta eserlekuak aurrez esleituta.

Etxebarrian, 2020ko urriaren 23an.

Alkatea  
Jesus Iñiondo Lejardi